

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2124

137/2021 EBAZPENA, martxoaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen den Lekualdatze-lehiaketa irekia eta iraunkorra ezartzeko zikloaren destinoen eskaintza kategorian honetan: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Optikako eta Optometriako Diplomaduna.

2019ko azaroaren 27ko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoaren oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozedurarako oinarriak onartu dira, 2019ko urriaren 29ko Osasuneko Mahai Sektorialean SATSE, SME eta UGT sindikatuekin Akordioa sinatu ondoren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

266/2021 Ebazpena, otsailaren 26koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitzen den kategorian honetan: Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Optikako eta Optometriako Diplomaduna.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1. atalean xedatutakoari jarraituz, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzako webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra ezartzeko 2021eko apirileko zikloaren destinoen eskaintza argiratzea kategorian honetan: Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko Optikako eta Optometriako Diplomaduna. Ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez deitutako zikloan data hauek hartu dira erreferentziatzat: 2021eko otsailaren 15a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko; eta 2021eko maiatzaren 7a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

2021eko apirileko ziklo honi dagokionez, lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 266/2021 Ebazpenean araututakoari jarraikiz, 2021eko maiatzaren 7ra arte.

2021eko apirilaren 14a, asteazkena

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2021eko apirileko ziklo honetan, 2021eko maiatzaren 7ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldeztu aurretik adierazitakoaren arabera.

2021eko apirileko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoen bat badute 2021eko maiatzaren 7a amaitzen denean.

Bigarrena.– Urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), ekainaren 26ko 8/1997 Legean (Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa) eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan (Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzekoa) ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari; horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 26a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
MARÍA PILAR URIARTE BRIZUELA.

2021eko apirilaren 14a, asteazkena

ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMADUNA

LANPOSTU FUNTZIONALA: OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMADUNA

Destino kop.	Zerbizuetako erakundea	Destinoa
1	Arabako ESI	Destinoa Ospital-Eremuan-Ospitaleko Arreta AE / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo-kontsultak - Gasteiz-Vitoria-Gasteiz / Oftalmologiako Unitatea-Oftalmologiako Unitatea / 2 Txanda-2 Txanda, bestelakoak-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Arabako ESI	Destinoa Ospital-Eremuan-Ospitaleko Arreta AE / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo-kontsultak - Gasteiz-Vitoria-Gasteiz / Oftalmologiako Unitatea-Oftalmologiako Unitatea / 2 Txanda-2 Txanda, bestelakoak-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bidasoko ESI	Destinoa Ospital-Eremuan-Ospitaleko Arreta AE / Bidasoako Ospitalea-Hondarribia / Oftalmologiako Unitatea-Oftalmologiako Unitatea / 2 Txanda-2 Txanda ohikoa (G/A)-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
2	Donostialdeko ESI	Destinoa Ospital-Eremuan-Ospitaleko Arreta AE / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia / San Sebastián / Oftalmologiako Unitatea-Oftalmologiako Unitatea / Goizez-Goizez ohikoa (08:00-15:00)-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
2	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Destinoa Ospital-Eremuan-Ospitaleko Arreta AE / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Oftalmologiako Unitatea-Oftalmologiako Unitatea / Goizez-Goizez ohikoa (08:00-15:00)-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Destinoa Ospital-Eremuan-Ospitaleko Arreta AE / San Juan de Dios Anbulatorioa-Santurtzi / Kanpo-Kontsultak (Ospitale Barnekoak + O-Ospitalez Kanpoko Kanpo-Kontsultak / Goizez-Goizez ohikoa (08:00-15:00)-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Uribeko ESI	Destinoa Ospital-Eremuan-Ospitaleko Arreta AE / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Oftalmologiako Unitatea-Oftalmologiako Unitatea / 2 Txanda-2 Txanda ohikoa (G/A)-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Uribeko ESI	Destinoa Ospital-Eremuan-Ospitaleko Arreta AE / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Oftalmologiako Unitatea-Oftalmologiako Unitatea / 2 Txanda-2 Txanda ohikoa (G/A)-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe